



IÑISTORRA
BILTZARRA



Sanmielak 2009

URNIETAR PRESTU 2009 IZENDAPENA

PRAIXKU BELAUNTZARAN AURTENGO URNIETAR PRESTUA

Bigarren urtez sari berezi hau

Urnietako IÑISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRAK iaz sortu zuen *URNIETAR PRESTU* ohorezko izendapen berria, Urnietako herrian eta herriaren alde kultura, euskara, gizarte edo, oro har, herrigintza alorretan eskuzabaltasunez eta hurkoaren ongi beharrez urteetan zehar egindako lanen ontasuna saritu eta eskertzeko xedez. Lehengo urtean saritua Martxeli Gorriti izan zen, eta izendapena erabaki zuen epaimahaiak aintzakotzat hartu zituen Martxelik serora gisa bizitza osoan Urnietako eliztarren alde egindako lana eta Egape Ikastolan 25 urtez egindako sukaldari lan eskuzabala.

Baina esan beharra dago, Urnietako herrian eta herriaren alde alor horietan guztietan egindako lanak sarigarri izateaz gain, Gipuzkoa edo Euskal Herri mailan -edo areago- alor berdinetan egindakoak ere sarigarri izango direla, beti ere saritua urnietarra denean.

Aurtengo udaberrian hasi zituen Iñistorra Biltzarrak bigarren izendapen hau erabakitzeko lanak eta sariko arautegiari jarraiki zortzi kidez osaturiko epaimahaia osatu zuen, bigarren izendapenari begira proposamenak jaso, aztertu, eztabaidatu eta erabakia hartzeko. Iñistorra Biltzarreko bazkide guztiei eman zaie aukera proposamenak egiteko.

Udan zehar epaimahaiak bilduriko proposamenak aztertu ondoren, irailaren 9an egin zuen bere azken bilera, eta azken txanda honetan hiru proposamenen artean eztabaidatu eta erabaki behar izan zuen. Azkenik, epaimahaiak 2009ko *Urnietar prestu* Praixku BELAUNTZARAN SAN SEBASTIAN jauna izendatzea erabaki du Urnietako herriaren zerbitzuan, herrilantako langile gisa, 30 urtetik gora egindako lana ezin arduratsuago eta eraginkorragoa izan delako, eta jubilatutako ondorenean ere bere eskarmentua ezinbesteko gertatu izan delako Urnietako herrilantaren ugari burutu ahal izateko. Praixku Belauntzaranen ibilbide profesionalak herriaren zerbitzuan gaur egungo funtzio publikoarentzat eredu beharko luke.



IÑISTORRA
BILTZARRA



Saria irailaren 27an

Praixku BelauntzaraneK *Urnietar prestu* izendapena irailaren 27an jasoko du, igandearekin, herriko Sanmiel jaien barruan Iñistorra Biltzarrak antolatu duen III. Iñistor Jaiean, bertsolariek bere saioa hasi ondorenean, arratsaldeko 17:00ak aldera. Izendapenaren ikur gisa, eta Iñistorra Biltzarrak onarturiko araudian agindu bezala, Praixku BelauntzaraneK sorbaldetatik behera jantziko dioten bizkar-zapi dotorea jasoko du, Urnietako herriaren armarrria bere apaingarriekin eta 2009 urtea brodatuak eramango dituenak. Gainera, izendapenaren agiria ere emango diote eskuetara Praixkuri. Bizkar-zapia eta agiria jaso aurretik Iñistorra Biltzarreko kide batek BelauntzaraneK egindako lanaren nondik norakoen berri laburra emango du, eta Praixkuk berak ere aukera izango du hitz batzuk esateko.

Urnietar prestu izendapenaren araudiaren arabera saria jasotzen duenari obligazio bakarra ezartzen zaio: herriko ospakizun jakinetan esku har dezanean -segizioak, jaietako agerraldiak, etab.-, egokierak hala eskatzen baldin badu, bizkar-zapia jазtea.

Ehorzle, iturgin, igeltsero...

Praixku BelauntzaraneK bere dituen merezimenduak azpimarratu nahi izan dituzte antolatzaileek: 1960ko hamarkaden udaleko langile izatera pasa bazen ere 1950ko hamarkadan hasia zen Urnietako Udalarentzat lehenengo igeltsero lanak egiten, Saturnino Larburu alkate zela. Beste bost alkate ere ezagutu zituen udalarentzako lan egin zuen denboran, Joakin Gomez, Jose Kerejeta, Ramon Atxaga, Joxe Manuel Martiarena eta Joxi Lizeaga. Azkar asko antzeman zioten Udaletxean zer enborreko ezpala zen Praixku: langile porrokatua, lana non sor zitekeen hantxe zegoen Praixku inork deitu edo esan beharrik gabe. Laster, haren zerbitzua ezinbesteko geratu zen Udalarentzat: kanposantuko ehorzle gisa ordu jakinik ez zuen lanerako, ezta bake-epailearekin joan behar zuenean ere gorpuak jasotzera. Igeltsero gisa ere noiznahi arituko zen lanean egiten zizkioten lan-mandatuak ahalik azkarren bukatuko bazituen. Baina, agian, urnietar gehienek Praixku gogoratzen dute haren lan neketsu eta arduratsuari esker Urnietako ur-hoditeriaren sarea primeran zainduta egon zelako urte askotan.

Askok gogoan dute Praixku lur-erretenean edo zuloan hodiak konpontzen, eta berdin zion matxura edo aberia zein ordutan gertatzen zen: Praixkuk haren berri jakin orduko hantxe zegoen, inork hitz erdi bat esaterako, egunsenti edo gau betea izan, eta ez zuen etsiko matxura konpondu arte. Inork ez du Urnietako lurrazpia ezagutzen Praixku BelauntzaraneK bezala, eta ezagutu diogu maiz lau-hankatan jarrita ibili behar izan delako lurrazpian batetik bestera, Idiazabal kalean, esate baterako. Eta jaietan, beste askok Adarra, Posentarri



IÑISTORRA
BILTZARRA



edo Atxular aldean itzulitxoak egiten zuten bezalaxe, Praixku hor ibiltzen zen mendian eta erreketan gora Urnietako herriarentzako iturri berrien bila, edo ur-isurian zeudenak garbitzera...

Epaimahaiak Belauntzararen merezimenduz emandako adibide batzuk dira, baina bada gehiago, horien artean jubilatutako ondorenean ere hamaika aldiz Udaletxera joan izanarena bertako teknikariei bere eskarmentuaz laguntza ematera ur-hodiren bat edo beste bilatzen, plano gutxi zen garai batean Praixkuk ur-hoditeriarena buruan josita baitzeukan. Eta zerbitzu horiek guztiak eskuzabaltasun osoz eman zituen eta eman izan ditu, gaur egungo funtzionarioentzat eredugarri gertatzen den jokabide batez.

Horrenbestez, urnietarren eskerrona eta ongi merezitako omenaldia jasoko du Praixku Belauntzaran San Sebastianek irailaren 27an Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak antolaturiko III. Iñistor Jaian.